

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2025eko APIRILAREN 22a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, apirilaren hogeita bian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025eko apirilaren 16an afixatua izan zen eta 2025eko apirilaren 16an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	11	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea

Ahalordea(k): ARANGOITS Isabelle andereak ahalordea emana zakon BIDART Betti jaunari, DEGUIRAUD Hélène andereak ahalordea emana zakon CURUTCHARRY Antton jaunari, DUPUY Maddalen andereak ahalordea emana zakon BIBES Jean-Paul jaunari, OLCOMENDY Betti jaunak ahalordea emana zakon MOCHO Frantxoa jaunari
Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jaunak

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Aldi bateko eginkizun zerbitzuei kidetzea eta CDG 64rekin hitzarmena izenpetzea
- Garbigailua BRETEL jaunari saltzea
- Sasoiko lanpostuen sortzea
- Mailegua egitea Agence France Locale bankuari
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko martxoaren 31ko bilkuraren bilduma onartu du.

1-2025-19. DELIBEROA - ALDI BATEKO EGINKIZUN ZERBITZUEI KIDETZEA ETA CDG 64REKIN HITZARMENA IZENPETZEA – 4.1. NOMENKLATURA

Jaun auzapezak organo deliberatzaileari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak herriarteko zerbitzu bat eskaintzen duela elkargoetako langileak falta direnean ordezkatzeko: aldi bateko eginkizun zerbitzua.

Kudeaketa Zentroak administrazio-desmarta guziak bere gain hartzen ditu eta gainera, langabezia-arriskua ere estaltzen du (langabezia-ordainsarien ordainketa ordezkapenaren bukaeran egiten du).

Kidetzea kitorik da eta engaiamendurik gabe: eman zerbitzua bakarrik fakturako da. Hona esku hartze baldintzak:

- eginkizunek oren batetik zenbait hilabetera iraun dezakete,

- fakturazio-baldintzek esku hartu duen langilearen tratamendua kontuan hartzen dute + % 10eko kudeaketa-gastuak + 30 €-ko prezio finkoa gastu profesionaletarako, eguneko eta eginkizun bakoitzeko
- esku hartzeak 16 ofiziotarako dira: mantentze-langilea, zerbitzu teknikoetako eginkizun anitzeko langilea, berdeguneetako langilea, ostalaritzako eginkizun anitzeko langilea, zerbitzu teknikoen arduraduna, aisialdietako eta eskolaz kanpoko animatzailea, etxe-laguntzailea, haur-artatzaile laguntzailea, osasun-laguntzailea, eskoletako langile berezitua, haurtzaindegiko langilea, administrazio-kudeaketa langilea, harrera-langilea, herriko etxeko idazkaria, herriko posta-bulegoko kudeatzailea, administrazio-aditua.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ERABAKI DU** 2025eko apirilaren 22tik goiti Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroko aldi bateko Eginkizun Zerbitzuen kide egitea;
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari eranskinean proposatu hitzarmenaren eta esku hartze eskaeraren izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 11
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOAK: /

2- 2025-20. DELIBEROA – RABAUD MARKAKO GARBIGAILUAREN SALTZEA - 1.4. NOMENKLATURA

Jaun auzapezak azaldu du Rabaud markako garbigailua salgai ezarri dela gutitan erabiltzen delako. Salmenta prezioa 7 000 €-tan finkatu da.

Jaun auzapezak esplikatu du Julien BRETEL jaunak, Mesnils-sur-Iton herrian paisaia-baratzezaina denak, 7 000 €-tan erosi nahi duela.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONTZAT EMAN du** garbigailuaren salmenta, **7 000 €**-tan.
- **ONARTU du** garbigailua BRETEL jaunari saltzea, 7 000 €-tan.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 11
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOAK: /

3- 2025-21. DELIBEROA – SASOIKO LANPOSTUEN SORTZEA – 4.2 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio sasoiko lanpostu batzuen sortzea herri kanpalekuko eta errepedeen zerbitzuko, udan lan gehiago baita.

- **Herri kanpalekuari doakionaz**

Sasoiko 3 lanpostu sortzea proposatu du denbora ez osoz, eta lan denbora honela finkatuko litzateke:

sasoiko lanpostu bat **2025/07/01etik 2025/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 64 oren

sasoiko lanpostu bat **2025/07/15etik 2025/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 72 oren

sasoiko lanpostu bat **2025/08/01etik 2025/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 64 oren

- **Errepedeen zerbitzuari doakionaz**

2025eko APIRILAREN 22ko bilduma

Sasoiko 5 lanpostu sortzea proposatu du denbora osoz, eta lan denbora honela finkatuko litzateke:

Sasoiko lanpostu bat **2025/07/01etik 2025/07/16ra**, asteko lanaldia bana besteko: 84 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/07/17tik 2025/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 84 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/07/24tik 2025/08/08ra**, asteko lanaldia bana besteko: 76 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/08/01etik 2025/08/14ra**, asteko lanaldia bana besteko: 76 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/08/18tik 2025/08/29ra**, asteko lanaldia bana besteko: 72 oren

Lansariak dagokion graduko 1. mailaren arabera finkatuko dira (administrazio laguntzailea eta teknika laguntzailea).

Tituludun ez diren langileek beteko dituzte postuak Lurraldeko Funtzio Publikoari buruzko 1984ko urtarrilaren 26ko lege aldatuaren 3-2. artikuluko xedapenen arabera; honi esker tituludun ez diren langileak har daitezke sasoiko lan emendatzeari buru egiteko, urtean 6 hilabetez gehienez.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du

- **Herri kanpalekurako**

sasoiko 3 lanpostu sortzea denbora ez osoz, eta lan denbora honela finkatzea:

sasoiko lanpostu bat **2025/07/01etik 2025/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 64 oren

sasoiko lanpostu bat **2025/07/15etik 2025/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 72 oren

sasoiko lanpostu bat **2025/08/01etik 2025/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 64 oren

- **Errepide zerbitzua**

sasoiko 5 lanpostu sortzea proposatu du denbora osoz, eta asteko lan denbora honela finkatuko da:

Sasoiko lanpostu bat **2025/07/01etik 2025/07/16ra**, asteko lanaldia bana besteko: 84 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/07/17tik 2025/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 84 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/07/24tik 2025/08/08ra**, asteko lanaldia bana besteko: 76 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/08/01etik 2025/08/14ra**, asteko lanaldia bana besteko: 76 oren

Sasoiko lanpostu bat **2025/08/18tik 2025/08/29ra**, asteko lanaldia bana besteko: 72 oren

BAIMENDU du jaun auzapeza dagokien lan-kontratuen izenpetzeko.

ZEHAZTU du lanpostu horietarako lansaria dagokien graduko 1. mailaren arabera finkatuko direla (administrazio laguntzailea eta teknika laguntzailea).

ZEHAZTU du beharrezko kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 11

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

4- 2025-22. DELIBERAZIOA - AGENCE FRANCE LOCALE BANKUARI MAILEGUA LARRAZKENA ZAHAR ETXEAREN BERRITZE OBRETARAKO – 7.3. NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du 2025eko finantzamendu beharretarako epe luzerako mailegua egin behar litzatekeela, 350 000 eurokoa, 15 urterako.

2025eko APIRILAREN 22ko bilduma

1. artikulua: Epe luzerako maileguaren ezaugarri nagusiak

- Mailegu kontratuaren zenbatekoa: 350 000 EUR (hirurehun eta berrogeita hamar euro)
- Iraupena guzira: 15 urte
- Amortizazio moldea: Hiruhileko epemuga iraunkorrak
- Tasa finkoa: 3,49%
- Maiztasuna: hiruhilekoa
- Kalkuluaren oinarria: 30/360 oinarria
- Hiruhilekotasuna: EUR 7 517.66
- Dossier gastuak: Ez da
- Engaiamendu komisioa: Ez da

2. artikulua: Izenpetzailearen ahalmenen hedadura

Antton CURUTCHARRY auzapezak baimena badu mailegu-hitza baimentzeko eta, ondotik, beste delibororik gabe eta bere ekimenez, formalitate guztiak egiteko, eta delibrazio hau betetzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko eta akta guztiak sinatzeko, eta horretarako ahalmen guztiak ukan ditu.

Herriko Kontseiluak, eskaintza guztiak aztertu ondoan, Agence France Locale bankuak (Zaintza eta Zuzendaritza Batzordea duen Sozietate Anonimoa) idatzi kontratu-proiektua osorik aztertu ondoan, zeinaren egoitza soziala 112 Rue Garibaldi, 69006 Lyon helbidean dagoen, Lyongo Merkataritza eta Sozietateen Erregistroan 799 379 649 zenbakiarekin erregistratua, eta horri buruz eztabaidatu ondoan,

ERABAKI du Antton CURUTCHARRY auzapezari mailegu-kontratua izenpetzeko baimena ematea.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 11

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

2. erabakia: 2025eko martxoaren 14an, Elizonde etxeko apartamendurako alokatze kontratuaren izenpetzea

3. erabakia: Plaza Xokon soinu sistema erabiltzeko berme baten plantan ezartzea

GAI OROTARIK

I

Hor zirenen zerrenda:

BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea

Bilkuran hartu deliberoak 19tik 22ra zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>